

Bidebieta

Haurrak saltzaile


Haur txoko-ko lagunak elastikoak eta txanoak saltzen dabilta. Zergatik? Sosak lortu nahi dituztelako 15. urteurrena ospatzeko.

Urria erdialdean, Donostiako haur txoko batek, Egiako Antxetak, hogei urte bete zituen. 2004an, beste batek, Bidebietakoak, hamabost urte egingo ditu. Urtemuga behar bezala ospatzeko, herri bazkaria, erakusketa eta kontzerturen bat antolatu nahi dute auzoan maiatza aldera. Hori guztia egiteko, noski, dirua behar da eta haur txoko-ko hezitzaileak eta haurrak lanean ari dira sos batzuk lortzeko: elastikoak, zortzi eurotan, eta txanoak, euro batean, jarri dituzte salgai. Asteazkenetan, 17.00etatik 18.00etara, Eroski parean izango dira zenbait haur, hezitzaileekin batera, saltzaile lenetan. Bienve eta Itsaso tabernetan, Kontadores gaztegunean eta haur txokoan bertan ere eskuratu ahal dira elastikoak eta txanoak.

Haurrak gustura

Haur txokoko egungo arduradunetako bi, Arritxu Zurbarano eta Monica Gonzalez, pozik daude haur txokoak izandako bilakaerarekin: "Haur askok lau urterekin hasi eta eta ziklo osoa, hau da, hamalau urte izan arte, gurekin jarraitzen dute. Beste aldetik, hasieran Mendiola ikastetxeko haurrak baino ez zitzaizkigun etortzen —haur txokoa ikastetxearen behealdean dago— eta A ereduan zebiltzanez, zaila egiten zitzaigun euskaraz lan egitea. Egun, berriz, Mendiolatik ez ezik, Herri Ametsa ikastolatik eta San Luis eta La Asuncion ikastetxeetatik datozkigu eta ia-ia guztiakin egiten dugu euskaraz". Egun lau eta 14 urte bitarteko 85 neska-mutil dabilta bertan. Dena dela, 14 urte betetzerakoan batzuek ez dute haur txokoarekiko harremana erabat eteten eta kanpaldietan eta bestelako ekintzetan laguntzaile lanak egiten dituzte. Arritxuk eta Monicak nabarmendu digutenez, gaztetxoek ez ezik, gurasoek ere haur txokoan egiten den lana

Eli Gorostegi



estimatzen dute: "Ekainean ikasturtea amaitu genuenean, guraso batzuek afaltzera gonbidatu gintuzten eta oroigarri bat oparitu ziguten; oso hunkigarria izan zen".

Jokoak, tailerrak, irteerak eta kanpaldiak egiten dituzte haur txokokoek, baina bada azken urteetan, indartu den beste bat: laguntza gela. Ber-

tan, ikasgairen batean zailtasunak dituzten haurrei lagurtzen diete hezitzaileek. Aurrerantzean, haur txokoko arduradunek Kontadores gaztekuarekin harremanak sendot nahi dituzte, "gurekin ego ondoren, gaztetxoek hara j dezaten. Azken finean, elkartzeko lekurik gabe gera e daitezten nahi dugu".



Olentzero, Baltasar eta Papa Noel

Arribu eta Monica orain dela zortzi urte hasi ziren lanean haur txokoan. Orduetik hona, pasarte gogoangarri bat baino gehiago izan dute. Duela urte batzuk, adibidez, Mendiola ikastetxekoek haurrentzat prestatutako ekitaldi bat zela medio, Arritxuri, Monicari eta Loreni —haur txokoko sortzailea da azken hau— Olentzeroz, errege magoz eta Papa Nolez mozarrotzea eskatu zieten. Hirukoteak, noski, eskaerari baietza eman zion eta mozarrotuta agertu ziren ikastetxean. Haur batzuei ezagun egin zitzaizkion hiru lagunak, baina, zalantzak zalantza, aurrez aurre Olentzero, Baltasar eta Papa Noel izan zituztela sinetsita joan ziren etxera.